

GOBERNU BATZARRA

2017.12. 18

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko abenduaren hemezortzian, 08:00etan, Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
Olatz Peon Ormazabal	
Zinegotziak:	
Patxi Amantegi Zubiria	
Nerea Letamendia Belloso	
Jokin Azkue Arrastoa	1.- Aurreko akta onartzea.
Iñigo Alonso Sarasibar (2. puntua amaitu ondoren joan da)	2.-Iurreamendi Egoitak aurkeztutako 22, 23 eta 24/2017.
Idazkaria:	3.-Tolosako Hiri antolamenduko Plan Orokorraren “6.1 San Kosme eta San Damian” azpiesparrua urbanizatzeko jarduketa programa. Testu bategina onartzea.
Begoña Garmendia Vazquez	4.-Lanbidek diruz lagunduriko langileen kontratu kopurua.
Kontuhartzailatza:	5.-Etorkinen euskara errefortzua ikastetxeetan, 17-18 ikasturteko hitzarmena.
Ainhoa Molinos Zubiaurre	6.- Ikastetxeen mantentzea: dirulaguntza.
	7.-Tolosa udalerriko hainbat eremuetan urbanizazio-laneko exekutatu ahal izateko proiektua onartzea.
	8.-Tolosa udalerriko hainbat eremuetan urbanizazio lanak exekutatu ahal izateko ondoko hitzarmenak onartzea:
	*Gipuzkoako Ur Partzuergoarekin hitzarmena.
	* Pedro Tolosa ibilbideko 5. eta 7. zk.etako Jabekideen elkargoarekin hitzarmena.

9.-Tolosa Udaleko 2017ko Lan Eskaintza Publikoa.

10.-68-69/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko abenduaren 11n egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- lurreamendi Egoitzak aurkeztutako 22, 23 eta 24/2017.

lurreamendi Egoitzak **22/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, 783,33 €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- lurreamendi Egoitzak aurkeztutako **22/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari eta lurreamendi Egoitzari.

.....

lurreamendi egoitzak **23/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, 84.719,71 €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- lurreamendi Egoitzak aurkeztutako **23/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari eta lurreamendi Egoitzari.

.....

lurreamendi egoitzak **24/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, 35.248,18 €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- lurreamendi Egoitzak aurkeztutako **24/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari eta lurreamendi Egoitzari.

Zu eta biok enpresak aurkezturiko ordainagiriaren kasuan, Udal Kontuhartzaileak adierazi du zerrendatik atera dela eta ez dela aurkeztu Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean, 2014ko abenduan izenpeturiko kontratuan xedaturiko orduen kopurua zein prezioa gainditu direlako. Arrazoi honengatik, aipatu enpresak ematen dituen zerbitzuak aztertu behar dira, indarrean dagoen kontratuarekiko erabaki bat hartu ahal izateko. Azkenik, ezin da ahaztu zerbitzu hauek administrazio eskuduna den Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku jarriko direla 2018ko urtean.

Une honetan Iñigo Alonso Sarasibar J.k bilkura utzi du.

3.- Tolosako Hiri antolamenduko Plan Orokorren "6.1 San Kosme eta San Damian" azpiesparrua urbanizatzeko jarduketa programa. Testu bategina onartzea.

Gobernu Batzarrak, 2017ko urriaren 30ean, behin betiko onarpena eman zion "6.1 San Kosme eta San Damian" azpiesparrua Urbanizatzeko Jarduketa Programari, hainbat baldintzei lotuta.

Bigarren baldintzak zioen Testu bategin bat aurkeztu behar zela, II.1 planoa zuzendua jasoko zuena.

Sustatzaileak, (BISTA ALAI, SA enpresa) testu bategina aurkeztu zuen 2017ko azaroaren 28an.

2017ko abenduaren 12an egindako txostenean udal arkitektoak honakoa dio:

"2017ko azaroaren 9an Urbanizatzeko Jarduketa Programaren behin betiko onarpena jaso zen. Hala ere, baldintzen artean hauxe eskatu zen:

1. Testu bategin bat aurkeztu behar da, II. 1 planoa zuzenduta (Exekuzio-unitatearen mugaketa eta lurzoruen lagapena). Egokitu behar da ordenazio xehatuan ezarritakora. Espazio publikoen eta pribatuen definizioa (sistema lokalen sarea) hirigintza-ordenazio

xehatuaren zati da, hortaz, urbanizatzeko jarduketa programa batek (hirigintza-exekuzioko dokumentua) ezin du, ez haren kontrakorik jaso, ez hura aldatu, ez baitu eskumenik horretarako.

Txosten hau idatzi da Urbanizatzeko Jarduketa Programaren testu bateginaren baldintza aztertzeko.

Aurkeztutako testu bateginean "II.1." izeneko plano aldatu egin da, eta egokitu da ordenazio xehatuan ezarritakora. Beraz, testu bateginaren alea ontzat eman daiteke."

Egun berean egindako txostenean, Hirigintza letratuak honakoa dio:

"Eskatzailea: Juan Carlos Soraluze Echaniz, Bista Alai, S.A. merkantilaren izenean.

Data: 2017ko azaroaren 28a.

Dokumentazioa: Urbanizatzeko Jarduketa Programaren Testu Bategina. 2017ko azaroa. Jose Mari Aseginolaza arkitektoak sinatua.

Eskaera: Urbanizatzeko Jarduketa Programaren Testu Bateginaren onarpena.

Udal arkitektoaren 2017ko abenduaren 12ko TR17_182 txosten teknikoan jasotzen dira 2017ko urriaren 30eko Gobernu Batzordearen behin betiko onarpenarekin batera ezarritako baldintzen betetzearen ingurukoak.

Txostenean adierazten denez, bere onarpenerako aurkeztutako Testu Bateginaren edukia egokia da eta ontzat eman daiteke.

Ondorioa

Kontuan hartuz 2017ko urriaren 30eko Gobernu Batzordean behin betiko onarpen baldintzatua eman zitzaiola eta legeak ezartzen duen bezala, hau da, ekainaren 30eko 2/2006 legeko 156. artikuluan xedaturikoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean akordioa bera eta legeak ezarritako edukin minimoa argitaratu zirela.

Kontuan hartuz behin betiko onarpenarekin batera ezarritako baldintza bete direla.

Ondorioz, 2015eko uztailaren 28ko Dekretuari jarraiki Gobernu Batzordeak Testu Bateginaren onartzea proposatzen da.

Bere edukia aldatu ez denez, plano bat salbu, eta legeak argitaratzea agintzen duen edukin minimoari eragiten ez dionez aldaketa horrek, ez da beharrezkoa beste behin argitaratzea.

Hau dena kontuan izanik, eta Hirigintza Batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea BISTA ALAI, SA enpresak sustatzen duen "6.1 San Kosme eta San Damian" azpiesparrua Urbanizatzeko Jarduketa Programaren testu bategina (2017ko azaroko dokumentua).

BIGARRENA.- Legeak argitaratzera agintzen duen eduki minimoari eragiten ez dionez aldaketak, beste behin ez argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea, Hirigintza Departamentuari eta Bista Alai, SA, enpresari.

4.- Lanbidek diruz lagunduriko langileen kontratu kopurua.

2017ko uztailaren 27an, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak enplegu sustatzeko toki-ekintzetarako 2017ko ekitaldiko laguntza deialdiari buruzko ebazpena eman zuen (2017ko uztailaren 28ko EHAA 143.zkian argitaratua).

2017ko irailaren 12an, Tolosaldeko enplegu plana aurrera eramateko foroa elkartu zen, bertan eskaera onartu zen. Bertaratuak hauek izanda: Alkizako Udala, Alegiko Udala, Villabonako Udala, Asteasuko Udala, Hernialdeko Udala, Ibarako Udala, Altzoko Udala, Berastegiko Udala, Tolomendi, Sutargi, Katealgaia, Tolosaldea Garatzen eta Tolosako Udala.

2017ko irailaren 15ean, Tolosako Udalak, eskualdeko udalen izenean, Lanbideko bulegoetan egin zuen aipatutako eskaera, 302321 zkiarekin.

2017ko azaroaren 2an, Lanbide-Euskal enplegu zerbitzuko zuzendari nagusiaren bidez, Diru-Laguntza onartutzat eman zen, R/17-LPE-5G espediente zkiarekin. Eskaeran eginiko proposamena onarturik, Tolosako Udalarik 281.839,37 €.

Aipatutakoa kontuan izanik eta Enplegu Teknikaria egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosari dagokion ondoren aipatzen diren 4 lanpostu hauek:

- * Informatikako departamendua: Informatika Lag. 1
- * Artxiboko departamentua: Artxibozaina 1
- * Obra eta Zerbitzutako departamentua: Peoi 1
- * Gizarte Zerbitzurako departamentua: Ikerlari 1

GUZTIRA: 110.507,91€

Kopuru honetan Administrari kostua sartuta dago.

Kontutan izanik, lanpostu bakoitza 12.500,00€koa dela, Tolosako Udalari 62.500€ dirulaguntza dagokio.

Kostua berriz 110.507,91€koa denez, Tolosako Udalak 48.007.91€taz kargu egin beharko du.

BIGARRENA.- Ondoren aipatzen diren lanpostu bakoitzari lanaldi osoa (100%) eta 6 hilabeteko iraupenak baldintzatuz diru-ekarpena ematea.

Kontratazio hauek, oroar, bete beharko dituzte, 2. artikuluan, 6.1.2. puntuan, 2017ko EHHako uztailaren 27an azaldetzen diren betekizunak. (EBAZPENA, uztailaren 28an argitaratua).

- a) Alkizako Udalak Enplegune 2017 programaren baitan teknikari bat kontratatzeko 12.500 €ko dirulaguntza ematea.
- b) Altzoko Udalak Enplegune 2017 programaren baitan peoi bat kontratatzeko 12.500 €ko dirulaguntza ematea.
- c) Larrauleko Udalak Enplegune 2017 programaren baitan teknikari bat kontratatzeko 12.500 €ko dirulaguntza ematea.
- d) Amasa-Villabona Enplegune 2017 programaren baitan 2 peio kontratatzeko 12.500 €ko dirulaguntza ematea, postu bakoitzeko. Guztira 25.000,-- €
- e) Amezketako Udalak Enplegune 2017 programaren baitan webmaster bat eta arkitektu bat kontratatzeko 12.500 €ko dirulaguntza ematea, postu bakoitzeko. Guztira 25.000,--€.
- e) Alegiko Udalak Enplegune 2017 programaren baitan peoi bat kontratatzeko 12.500 €ko dirulaguntza ematea.
- g) Tolosaldea Garatzen Enplegune 2017 programaren baitan teknikari bat kontratatzeko 12.500 €ko dirulaguntza ematea.

HIRUGARRENA.-Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Enplegu Departamentuari.

Tokiko Gobernu Batzarkideek adierazi dute erabaki honetan agertzen den aurrekontua behin-behinekoa dela, dagokion kitapenarekin baldintzatuta dagoelarik.

5.- Etorkinen euskara errefortzua ikastetxeetan, 17-18 ikasturteko hitzarmena.

Tolosako Udalaren laguntzarekin euskarazko errefortzu eskolak ematen dira ikasle etorkinentzat -beharra dutenentzat- Tolosako DBHko hiru ikastetxeetan: Herrikide ikastetxean (I.F.K.: R2000408A), Laskorain ikastolan (I.F.K.: F20098307) eta Orixe institutuan (I.F.K.: S4833001C).

Aipatu ikastetxeen iritziz, euskarazko errefortzuko eskolen zerbitzua ematen jarraitzea beharrezkoa da ikasle horiek heziketa prozesuan modu egokian segitzeko. Era berean, 2017-18 ikasturteari begira, Tolosako Udaleko Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak ontzat jotzen du programa horrekin aurrera jarraitzea, aintzakotzat hartuta Tolosako Udalak 2015-2019 epealdirako onartutako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana.

Bestalde, Tolosako Udalak, 2017ko urtarrilaren 31ko osoko bilkuran, Tolosako Udalaren diru laguntzen 2017-2019ko plan estrategikoa onartu zuen. Eta plan horretan, 2017ko udal aurrekontuetako 0900.481.01.335.10 partidan, 7.110na euro daude izendatuta aipatutako hiru ikastetxeentzat "Etorkinen euskalduntzea" zioarekin.

Kontuan hartuz, beraz, adierazitako guztia, eta berariaz egindako udal txosten teknikoak, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Herrikide, Laskorain eta Orixe ikastetxeekin hitzarmena sinatzea, 2017-2018 ikasturtean euskarazko errefortzu eskolen zerbitzua emateko DBHko ikasle etorkinei.

BIGARRENA.- 2017-2018 ikasturteko iraila eta abendua bitarteko atalari dagokion diru laguntzarako 8.532 euro onartzea, 2017ko udal aurrekontuaren gain (0900.481.01.335.10), eta ikastetxe bakoitzarekin sinatutako hitzarmenaren arabera, honako era honetan banatzea:

Herrikide ikastetxeari	2.844 euro
Laskorain ikastolari	2.844 euro
Orixe institutuari	2.844 euro

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Euskara Zerbitzuari eta hiru ikastetxei.

6.- Ikastetxeen mantentzea: dirulaguntza.

Tolosako Udalak 2017 urterako onartutako aurrekontuan, 0900 481.01 32000 partidan, dirulaguntzetan, 48.000 euro ezarri zituen ikastetxe ikastetxe itunduen mantenimendurako.

Ildo beretik, Tolosako Udalak 2017ko urtarrilaren 31ko Osoko Bilkuran diru laguntzen plan estrategikoa onartu zuen, eta han diru laguntza izendunen artean, hitzartutako ikastetxeen mantenua zioarekin, 0900 481.01 32000 partidan, honako hauek:

- Herrikide (lehen Hirukide) ikastetxearen izenean, 18.953,05 euro.
- Laskorain Ikastola ikastetxearen izenean, 29.046,95 euro.

Bestetik, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordean, 2017ko irailaren 26an, aipameneko diru laguntza egiteko proposamena aurkeztu zen eta aho batez onartu zuten.

Kopuruaren banaketa, aurreko urteetan bezala, Tolosan erroldatutako HH eta LHko ikasle kopuruaren arabera egin da, kontuan hartuz ikastetxeek aurkeztutako 16-17 ikasturteko matrikulazio datuak: Hirukidek (Jesuitinak+Gainberri), 614 ikasle, eta Laskorain ikastola, 941 ikasle. Guztira 1.555 ikasle.

Hortaz, kontuan izanik adierazitakoa, Gobernu Batzar honek aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2017ko diru laguntzak honako taula honetan agertzen den eran ematea:

<u>Ikastetxea</u>	H.H. eta L.H.ko Tolosako ikasle kopurua	Diru kopurua ikasleko	Diru laguntza
<u>Herrikide Ikastetxea</u>	614 ikasle	48.000/1.555 €	18.953,05 €
<u>Laskorain Ikastola</u>	941 ikasle	48.000/1.555 €	29.046,95 €
OROTARA	1.555 ikasle		48.000 €

BIGARRENA.- Diru laguntza jasotzeko, aipatu ikastetxeek honako kontzeptu hauei dagokien dokumentazioa aurkeztu beharko diote Udalari (agiri originalak edo kopia konpultsatuak): eraikinen konponketa arruntak, erregaiak, ura, argia eta garbiketa; eta zergak zein gizarte segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea bi ikastetxeei, Kontuhartzaitzari eta Euskara Zerbitzuari.

7.- Tolosa udalerriko hainbat eremuetan urbanizazio-laneko exekutatu ahal izateko proiektua onartzea.

Tolosako hainbat lekutan berurbanizazio lanak egiteko proiektua onartzeari buruzko Hirigintzako buruak egin duen txostena ikusita, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Harreman Ingenieria enpresak egindako "Tolosako Udalerriko hainbat kaleen hiritartze lanak" deituriko Proiektua onartzea.

Proiektu horrek aurreikusten dituen lanen aurrekontu estimatua 175.508,62€koa da, %21eko BEZa barne, horietatik 145.048,44€ printzipalari dagozkio eta 30.460,18€ %21eko BEZari.

BIGARRENA.- Obraren kontratazio-espeditzea izapidetzen hasi aurretik, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeren Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 126. artikulua ezarrikoarekin bat, **Udaleko zerbitzu teknikoei eskatzea PROIEKTUAREN ZUINKETA EGITEA, obraren errealitate geometrikoa egiaztatzeko**, eta obra hori arazorik gabe egiteko beharrezko lurak erabilgarri daudela ziurtatzeko. Era berean, egindako proiektuan agertzen diren eta kontratua egiteko oinarrikoak diren kasu guztiak egiaztatu beharko dira.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Obra departamentuari.

8.- Tolosa udalerriko hainbat eremuetan urbanizazio lanak exekutatu ahal izateko ondoko hitzarmenak onartzea:

Gipuzkoako Ur Partzuergoarekin hitzarmena.

Tolosako Udalak, 2006ko azaroaren 28an, uraren ziklo integralaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Partzuergoaren bitartez jarraitzea erabaki zuen. Hitzarmen honetan, Aguas de Gipuzkoa -Gipuzkoako Urak, S.A.rekin dagokion kudeaketa-agindua onartzea hitzartu zuen bi alderdiek.

Erabaki horren bitarte Gipuzkoako Ur kontsorzioak Tolosako udalerrian, 3.350.000,00€ (BEZ-a barne) inbertitzeko konpromisoa hartu zuen hitzarmena sinatu eta hurrengo hamabos urteetan, ur-saneamendu eta ur-hornidura dagokienez.

Tolosako Udalak eta gipuzkoako Ur Kontsorzioak azken urtetan sinatu dituzte antzeko hitzarmenak, hainbat urbanizazio obretako ur-saneamendu eta ur-horniduraren kostuak Gipuzkoako Urak bere gain har ditzan.

Oraingo honetan, lau urbanizazio lan aurreikusten ditu Udalak egitea, eta horietako hirutan ur-saneamendu aeta ur-hornidura lanak aurreikusten dira, eta, aurrez egin den bezala proposatzen da Ur Kontsorzioak bere gain hartzea kostu horiek.

Ikusirik udalak egin behar dituen obrak egiteko kaleko zorua altxatu behar dela, momentu egoki da ur-saneamendu eta ur-hornidura aldatzeko. Beraz, udalak egingo ditu obra horiek, eta aipatutako partiden gastua Ur Kontsorzioak ordainduko du.

Obren kopurua (BEZ barne) 175.508,62 eurokoa da, eta Ur Kontsorzioak ordaindu behar duen kopurua, 15.508,21 eurokoa.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik eta ikusiz Hirigintzako buruak egindako txostena, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez balituta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Ur Kontsorzioarekin hitzarmena sinatzea hainbat urbanizazio obretako (Pedro Tolosa 5-7, Batxiler Zaldibia 2-4, Korreo kalea, Kale Nagusia pasabidea eta Enperadore kalea-Kale Nagusia pasabidea) ur-saneamendua eta ur-horniduraren obrak egin eta finantzatzeko.

BIGARRENA.- Alkateordea ahalduntzea Hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea obrta eta Zerbitzu Sailari eta Kontuhartzailetzari.

.....

Pedro Tolosa ibilbideko 5. eta 7. zk.etako Jabekideen elkargoarekin hitzarmena.

Pedro Tolosa kalean, 5 eta 7 zenbakidun eraikinen aurrean, Udalak kaleko zeharkako malda kentzeko obrak egin behar ditu. Horretarako udalak gainazaleko kotak aldatu beharko ditu. Bestalde, jabekideek etxeko atarietan duten koska kentzeko beharrezko lanak egin beharko lituzkete. Bi lan horiek ez dira banagarriak, eta horrela aipatzen da Udal ingeniariak egindako txostenean.

Beraz, obrak ezin direlako banatu, proposatzen da Hitzarmen bat egitea Jabekideekin zeinaren arabera Udalak egingo dituen obra guztiak eta Jabekideek ordainduko duten koska kentzeko obren kostua.

Aipatutakoa kontuan izanik eta Hirigintzako buruek egin duen txostenaren arabera, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Pedro Tolosa 5 eta 7ko jabekideekin ondoren aipatzen den hitzarmena onartzea:

“HITZARMENA, TOLOSAKO UDALAREN ETA PEDRO TOLOSA PASEALEKUKO 5 ETA 7 ERAIKINETAKO JABEKIDEEN ELKARGOEN ARTEKOA, ZEHAZTEKO, BATETIK, PASEALEKU HORRETAKO ESPALOIETAN EGIN BEHARREKO OBRAK HARTZEN DITUEN ETXEBIZITZETAKO EZKARATZEKO SARBIDEEN BALDINTZAK ETA, BESTETIK, OBRAREN FINANTZIAZIOA.

Tolosa, 2017ko.....aren.....(e)an,

BILDURIK

Batetik, OLATZ PEON ORMAZABAL, TOLOSAKO UDALEKO alkate-lehendakaria, egintza hau gauzatzeko ahalmena duena, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko ...aren ...(e)ko bileran hartutako erabakiaren bidez emana.

Hitzarmen honi gehitutako 1. eranskinean dago erabaki horren egiaztagiria.

Bestetik,, adinez nagusia, NAN:,
Tolosako bizilaguna (.....pasealekua...)

Eta...

Biek, hurrenez hurren, Pedro Tolosa pasealekuko 5 eta 7 eraikinetako jabekideen elkargoetako lehendakari gisa dihardute.

Hitzarmen honi gehitutako 2. eranskinean daude izendapen horien egiaztagiriak.

AZALTZEN DUTE

Lehena.- Aurrekariak

Pedro Tolosa pasealekuak, 5 eta 7 ezkaratzen parean, badu zeharkako malda bat, irisgarritasun-araudiak onartzen duena baino handiagoa. Tolosako Udalak urbanizazio-proiektu bat enkargatu du, eraikin horien parean dagoen kale-zatiarena, lehen agertutako arazo horri konponbidea emateko. Proiektu hori Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zueneta erabaki horren ziurtagiria erantsi zaio hitzarmen honi 1. dokumentu gisa.

Nolanahi ere, Udalak aurreikusitako obra horrek ez du konpontzen eraikin horietako ezkaratzek irisgarritasun aldetik duten arazoa, izan ere, ez ditu ezabatzen ezkaratz horietan dauden eskailera-mailak. Horretarako, beharrezkoa da Udalak aurreikusitako obra jabekideen elkargoak osatzea, nola eta ezkaratzen irisgarritasun-arazoa konpontzeko beharrezkoa den obra eginda.

Hasiera batean, Udalaren obraren kostua 32.947,22 euro da (BEZa barne) eta jabekideen elkargoek egin beharreko obrarena 8.882,22 euro (BEZa barne). Hala ere, behin betiko kopuruak obren kitapena egin ondoren finkatuko dira.

Komeni da bi obra horiek aldi berean egitea; hortaz, bi aldeek adostu dute obrak Udalak egitea eta jabekideen elkargoek beren gain hartzea dagokien obraren gastua.

Bigarrena.- Pedro Tolosa pasealekuko 5. eta 7. zenbakietako jabekideen erkidegoak dagokion obra-proiektua onartu du, eta konpromisoa hartu du lan horiek finantzatzeko, 2017ko irailaren 19an hartutako erabakiaren arabera.

Hitzarmen honi erantsi zaio erkidegoak hartutako erabakiaren ziurtagiria, 2. dokumentu gisa.

Hirugarrena.- Bi aldeek gaitasun juridikoa eta jardutekoa aitortu diote elkarri eta adostu dute **HITZARMEN** hau sinatzea, eta, horretarako, ondorengoa

HITZARTU DUTE:

Lehena.- Tolosako Udalak egingo ditu Pedro Tolosa pasealekuko urbanizazio-obrak, 5 eta 7 eraikinen parean, ezkaratzek kalera begira duten desnibela gainditzeko beharrezkoak diren diru-partidak ere jarrita.

Jabekideen elkargoak baieztatzen du ezagutzen dituela bai obra-proiektuak, bai irisgarritasun-arazoaren konponbide teknikoa, eta ontzat jotzen du proiektuan planteatutako konponbide teknikoa, 2017-09-19an jabekideen elkargoak ezohiko bilera orokorrean hartu zuen erabakiaren arabera.

Bigarrena.- Tolosako Udalak abian jarriko du obrak esleitzeko kontratazio-jardunbidea gehienez ere hilabete bateko epean, hitzarmena sinatu eta hurrengo egunetik kontatuta.

Obrak hasiko dira gehienez bi hilabeteko epean obra kontratua sinatzen den egunetik kontatuta.

Obren iraupena hilabetekoa izango da.

Nolanahi ere, Tolosako Udalarari ezin izango zaizkio egotzi hirugarrenen erantzukizunez sor daitezkeen atzerapen edota eragozpenak.

Hirugarrena.- Tolosako Udalak urbanizazio-obrari dagokion kopurua ordaindu beharko du, 32.947,22 euro (BEZa barne), eta jabekideen elkargoek ordaindu beharko dute desnibela gainditzeko behar den kopurua, 8.882,22 euro (BEZa barne), proiektuan kalkulaturakoaren arabera.

Laugarrena.- Baldin eta kontratuaren likidazioa ezarritako kopuruak baino handiagoa edo txikiagoa bada, igoera edo jaitsiera hori aplikatuko zaie jabekideen elkargoek jarri beharreko kopuruei, obraren aurrekontuaren likidazioa aldatzen den proportzio berean.

Bosgarrena.- Jabekideen elkargoak, hitzarmen hau sinatu aurretik, ordaindu du hitzarmen honetan aurreikusitako kopurua (8.882,22 €), obren azken likidazioaren kontura. Udalak behin azken likidazioa hartu eta onartutakoan, jabekideen erkidegoak ordaindu behar duen kopuruaren likidazioa egingo du. Azken likidazioaren arabera baldin eta txikiagoa bada jabekideen erkidegoak

ordaindu behar duen kopurua aurrez ordaindutakoa baino, aldea edo diferentzia itzuliko zaio hilabeteko epean, obren azken likidazioa onartzen denetik kontatua. Baina baldin eta azken likidazioa handiagoa bada aurreikusitakoa baino, jabekideen erkidegoari jakinaraziko zaio ordaindu behar duen kopurua, azken likidazioaren justifikazio dokumentalarekin batera. Kopuru hori Udalari ordaindu beharko zaio 45 eguneko epean, azken likidazioa jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Ordainketetan izan daitezkeen atzerapenek Estatuko aurrekontuak arautzen dituen 3/2017 Legeak xedaturiko berandutze-interesa sortaraziko dute.

Seigarrena.- Jabekideen elkargoak hitzarmen honetan jasotako azken likidazioaren ordainketa hitzarturiko epean ez gauzatzeak eskubidea emango dio Tolosako Udalari hitzarmena deuseztatzeko eta sor zaizkion kalteengatik dagokion kalte-ordaina jasotzeko.

Zazpigarrena.- Hitzarmen honek izaera administratiboa dauka, eta sor daitezkeen auziak administrazioarekiko auzialdiko jurisdikzioaren aurrean ebatziko dira.

Nolanahi ere, hitzarmenaren exekuzioan, Tolosako Udalak hartzen dituen erabakiak berehala izango dira exekutagarriak.”

BIGARRENA.- Alkateari baimena ematea hitzarmena sinatzeko.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea obra eta Zerbitzu Departamentuari eta Kontuhartzaitzari.

9.- Tolosa Udaleko 2017ko Lan Eskaintza Publikoa.

Tolosako Udaleko 2017 ekitaldirako Lan eskaintza publikoa onartzeko Pertsonal teknikariak egin duen txostena ikusita, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosako Udaleko 2017 ekitaldirako LAN ESKAINTZA PUBLIKOA ondoren aipatzen diren ezaugarriekin:

UDALTZAINA

ESKALA: Administrazio Berezia

AZPIESKALA: Zerbitzu bereziak.

MOTA: Udaltzainak eta Iguntzaileak

IZENA: Udaltzainak
SAILKAPEN TALDEA:C
AZPITALDEA:C2
MAILA OSAGARRIA: 17
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 2. HE DERRIGORREZKOA
GIDA-BAIMENA: A1 (MOTORRA) ETA B+E (garabia)
LANPOSTU KOPURUA: 1
TXANDA: librea
HORNITZEKO ERA: Lan eskaintza publikoa
HAUTAKETA SISTEMA: lehiaketa-oposizioa.

BIGARRENA.- 2017 ekitaldiko Lan eskaintza publikoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta udaleko web orrian. Halaber, lan eskaintza publikoaren laburpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, zer egun eta zer zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialetan argitaratu den adieraziz.

HIRUGARRENA.- 2018 urteko lehen hiruhilabetean Giza Baliabideak arrazionalizatzeko Enplegu Plan bat aurkeztea.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailletza Departamentuari eta Udaleko langileen ordezkari.

10.- 68-69/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak

Kontuhartzailletzak **68/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **1.409,42** -koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **68/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailletzari.

.....

Kontuhartzailletzak **69/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **881.995,70 €**koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **69/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaituzat jo da 10:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA